- Abrir sucursales, delegaciones, Oficinas de Representación, etc, fuera del ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca.

- Recibir subvenciones y garantías de la Hacienda General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de otras Instituciones y Entidades Públicas de la Comunidad Autónoma, así como del sector público estatal.

En la actualidad la Sociedad tiene su domicilio social y fiscal en Bilbao, c/Alameda de Urquijo, 36 (Bizkaia).

Las cuentas anuales consolidadas del ejercicio 2019 del Grupo SPRI fueron formuladas con fecha 14 de abril de 2020. El Grupo SPRI deposita sus cuentas anuales consolidadas en el Registro Mercantil de Álava.

Al 31 de diciembre de 2020 la Sociedad no está obligada, de acuerdo con el contenido del artículo 42 del Código de Comercio, a formular cuentas anuales consolidadas.

Las presentes cuentas anuales se presentan en euros, que es la moneda funcional y de presentación de la Sociedad.

El tiempo de duración de la Sociedad será indefinido o ilimitado y dio comienzo a sus operaciones el día en que se firmó la escritura de constitución, el 15 de diciembre de 2017.

La Sociedad está gobernada por la Junta General de Accionistas y por el Consejo de Administración.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince centimos

N 20528117 C

**2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak**

**2.1 Sozietateari aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparrua**

Administratzaileek urteko kontu hauek aurkeztu dituzte, sozietateari aplikagarri zaion finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorriz. Honako hauetan ezarritakoa da hori:

a) Merkataritzako Kodea eta merkataritza-arloko gainerako legeria.

b) 1514/2007 Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra eta haren sektoreko egokitzapenak.

c) Kontabilitate Plan Orokorraren eta haren arau osagarrien garapenean, Kontabilitate eta Kontu Auditoretza Institutuak onartutako nahitaez bete beharreko arauak.

d) Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate-araudia.

**2.2 Irudi fidela**

Sozietatearen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira urteko kontuak, eta aplikatu beharreko finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat etorriz, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideekin bat etorriz aurkezten dira. Horrenbestez, dagokion ekitaldian izandako sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta eskudiru-fluxuen irudi zehatza erakusten dute. Sozietatearen administratzaileek egin dituzte urteko kontuak, eta Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiaren onespena jaso beharko dute, baina, espero dugunaren arabera, batere aldaketarik gabe onartuko ditu.

**2.3 Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak**

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Horrez gain, administratzaileek, urteko kontu hauek egitean, kontuan hartu dituzte nahitaez aplikatu beharreko kontabilitateko printzipio eta arauak. Printzipio eta arau horiek eragin nabarmena dute urteko kontuetan. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

**2. Bases de presentación de las cuentas anuales**

**2.1 Marco Normativo de información financiera aplicable a la Sociedad**

Estas cuentas anuales se han formulado por los Administradores de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable a la Sociedad, que es el establecido en:

a) Código de Comercio y la restante legislación mercantil.

b) Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007 y sus Adaptaciones sectoriales.

c) Las normas de obligado cumplimiento aprobadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas en desarrollo del Plan General de Contabilidad y sus normas complementarias.

d) El resto de la normativa contable española que resulte de aplicación.

**2.2 Imagen fiel**

Las cuentas anuales han sido obtenidas de los registros contables de la Sociedad y se presentan de acuerdo con el marco normativo de información financiera que le resulta de aplicación y en particular, los principios y criterios contables en él contenidos, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera, de los resultados de la Sociedad y de los flujos de efectivo habidos durante el correspondiente ejercicio. Estas cuentas anuales, que han sido formuladas por los Administradores de la Sociedad, se someterán a la aprobación por la Junta General Ordinaria de Accionistas, estimándose que serán aprobadas sin modificación alguna.

**2.3. Principios contables no obligatorios aplicados**

No se han aplicado principios contables no obligatorios. Adicionalmente, los Administradores han formulado estas cuentas anuales teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales. No existe ningún principio contable que, siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 20528118 C

## 2.4 Ziurgabetasunaren balorazioari eta estimazioari buruzko alderdi kritikoak

Erantsitako urteko kontuak egiteko orduan, sozietatearen administratzaileek eginiko zenbatespenak erabili dira, erregistratutako aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu edo konpromisoetako batzuk baloratzeko. Oro har, honako hauei buruzkoak dira zenbatespen horiek:

- Aktibo jakin batzuen narriaduragatik izan daitezkeen galerak ebaluatzea (4.2. eta 4.5. oharrak).
- Aktibo materialen eta higiezinen inbertsioen bizitza baliagarria (4.2. oharra).

Aipatutako zenbatespen horiek 2020ko ekitaldia ixtean eskura zegoen informazio onenaren arabera egin badira ere, baliteke, etorkizuneko gertaerek eraginda, hurrengo ekitaldietan horiek (gorantz edo beherantz) aldatu behar izatea; halakorik gertatuz gero, era prospektibo batez egingo litzateke aldaketa hori.

## 2.4. Aspectos críticos de la valoración y estimación de la incertidumbre

En la elaboración de estas cuentas anuales se han utilizado estimaciones realizadas por los Administradores de la Sociedad para valorar algunos de los activos, pasivos, ingresos, gastos y compromisos que figuran registrados en ellas. Básicamente estas estimaciones se refieren a:

- La evaluación de posibles pérdidas por deterioro de determinados activos (Notas 4.2 y 4.5).
- La vida útil de los activos materiales (Nota 4.2).

A pesar de que estas estimaciones se han realizado sobre la base de la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2020, es posible que acontecimientos que puedan tener lugar en el futuro obliguen a modificarlas (al alza o a la baja) en los próximos ejercicios, lo que se realizaría, en su caso, de forma prospectiva.

## 2.5 Informazioaren konparazioa

2019ko ekitaldiari dagokion memoria honetan jasotako informazioa 2020eko ekitaldiko informazioarekin alderatuta aurkezten da.

## 2.5. Comparación de la información

La información contenida en esta memoria referida al ejercicio 2019 se presenta, a efectos comparativos, con la información del ejercicio 2020.

## 2.6. Kontabilitate-irizpideen aldaketak

Kontabilitate-irizpideetan ez da aldaketa handirik gertatu 2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, 2019eko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

## 2.6. Cambios en criterios contables

Durante el ejercicio finalizado el 31 de diciembre de 2020 no se han producido cambios de criterios contables respecto a los criterios aplicados en el ejercicio 2019.

## 3. Ekitaldiko emaitzaren aplikazioa

Sozietateak emaitza nulua lortu du 2020ko ekitaldiaren amaieran, eta, beraz, ez da beharrezkoa huraren banaketari buruz erabakitzea.

## 3. Aplicación del resultado del ejercicio

La Sociedad ha obtenido un resultado nulo al cierre del ejercicio 2020, no siendo por tanto necesario decidir sobre la aplicación del mismo.

## 4. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

Hona hemen sozietateak 2020ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko erabilitako erregistro- eta balioespen-arau nagusiak, Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritakoekin bat etorriz:

## 4. Normas de registro y valoración

Las principales normas de registro y valoración utilizadas por la Sociedad en la elaboración de sus cuentas anuales del ejercicio 2020 de acuerdo con las establecidas por el Plan General de Contabilidad, han sido las siguientes:

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 20528119 C

**4.1 Ibilgetu ukiezina**

Oro har, eskuratze-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera baloratzen da hasiera batean ibilgetu ukiezina. Geroago, metatutako amortizazioak minoratutako kostuan baloratzen da eta, hala badagokio, jasan duen narriaduragatiko galerak minoratuta. Aktibo horiek beren bizitza baliagarriaren arabera amortizatzen dira. Aktibo horien bizitza baliagarria ezin bada modu fidagarrian estimatu, hamar urteko epean amortizatzen dira.

*Aplikazio informatikoak*

Sozietateak kontu honetan erregistratzen ditu ordenagailu-programak eskuratu eta garatzeagatik izandako kostuak, direla webguneak garatzeko kostuak barne. Aplikazio informatikoak mantentzeagatiko kostuak, gertatzen diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuan erregistratzen dira. Aplikazio informatikoen amortizazioa egiteko, metodo lineala aplikatzen da hamar urtez, bizitza baliagarria ezin denez modu fidagarrian estimatu.

**4.2. Ibilgetu materiala**

Ibilgetu materiala balioesteko, hasieran, eskuratze-prezioa edo produkzio-kostua hartzen da kontuan, eta, ondoren, dagokion metatutako amortizazioa eta narriaduraren ondoriozko galerak, halakorik badago, kendu behar zaizkio.

Sortzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kargatzen dira ibilgetu materiala osatzen duten elementuen kontserbazio- eta mantentze-gastuak. Ondasunen kostu handiago modura erregistratzen dira, aldiz, ondasun horien ahalmena edo eraginkortasuna handitzen edo bizitza baliagarria luzatzen laguntzen duten hobekuntzetan inbertitutako zenbatekoak.

Ibilgetu materialaren ordezpenak edo berritzeak aktiboan kontabilizatuko dira, eta, hartara, ordeztutako edo berritutako elementuak kontabilitatetik kendu beharko dira.

Errentamendu operatiboko erregimenean errentan dauden ondasunetako hobekuntzak kostu handiago modura kapitalizatuko dira dagokion kapituluan, baldin eta errentan dagoen higiezinari behin betiko txertatzen bazaizkio, eta kontratuaren aldian edo aktiboaren bizitza baliagarriko epean amortizatuko dira, txikiagoa bada.

**4.1. Inmovilizado intangible**

Como norma general, el inmovilizado intangible se valora inicialmente por su precio de adquisición o coste de producción. Posteriormente se valora a su coste minorado por la correspondiente amortización acumulada y, en su caso, por las pérdidas por deterioro que haya experimentado. Dichos activos se amortizan en función de su vida útil. Cuando la vida útil de estos activos no puede estimarse de manera fiable se amortizan en un plazo de diez años.

*Aplicaciones informáticas*

La Sociedad registra en esta cuenta los costes incurridos en la adquisición y desarrollo de programas de ordenador, incluidos los costes de desarrollo de las páginas web. Los costes de mantenimiento de las aplicaciones informáticas se registran en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. La amortización de las aplicaciones informáticas se realiza aplicando el método lineal durante un periodo de diez años, por no poder estimar una vida útil de manera fiable.

**4.2. Inmovilizado material**

El inmovilizado material se valora inicialmente por su precio de adquisición o coste de producción, y posteriormente se minora por la correspondiente amortización acumulada y las pérdidas por deterioro, si las hubiera.

Los gastos de conservación y mantenimiento de los diferentes elementos que componen el inmovilizado material se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. Por el contrario, los importes invertidos en mejoras que contribuyen a aumentar la capacidad o eficiencia o a alargar la vida útil de dichos bienes se registran como mayor coste de los mismos.

Las sustituciones o renovaciones de elementos del inmovilizado material se contabilizan en el activo, con el consiguiente retiro contable de los elementos sustituidos o renovados.

Las mejoras en bienes arrendados en régimen de arrendamiento operativo que se incorporan definitivamente al inmueble arrendado, se capitalizan como mayor coste en el epígrafe correspondiente y se amortizan en el período del contrato o en el plazo de la vida útil estimada del activo, si fuera menor.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 20528120 C

Sozietateak metodo linealari jarraituta, amortizatzen du ibilgetu materiala, dena delako ondasunaren bizitza baliagarriko urteen arabera kalkulaturiko urteko amortizazio-ehunekoak aplikatuz, honako xehetasun honen arabera:

La Sociedad amortiza el inmovilizado material siguiendo el método lineal, aplicando porcentajes de amortización anual calculados en función de los años de vida útil estimada de los respectivos bienes, según el siguiente detalle:

| | Kalkulatutako Bizitza baliagarria / Años de Vida Útil Estimada |
|---|---|
| Instalazio teknikoak / Instalaciones técnicas | 10 |
| Altzariak eta lanabesak / Mobiliario y enseres | 6 – 15 |
| Informazioa prozesatzeko tresneria / Equipos para proceso de información | 4 |

### 4.3. Ibilgetu materialaren balioaren narriadura eta ukiezina

Ekitaldi bakoitza ixtean, edo ibilgetuko elementuren batek balioa galtzen duen zantzurik dagoen aldiro, «Narriadura-testa» izenekoa erabiliz aztertuko du sozietateak ea egon den aktibo horien balio berreskuragarria kontabilitateko balioarena baino zenbateko txikiago batera murrizten duen balio-galerarik.

Zenbateko berreskuragarria hauxe da: arrazoizko balioaren (salmenta-kostuak kenduta) eta erabilera-balioaren arteko zenbateko handiena.

Ibilgetuko elementuen narriaduraren ondorioz egiten diren balorazio-zuzenketak eta, halaber, balorazio-zuzenketa eragin zuten arrazoiak desagertu direlako egiten diren itzulketak, galdu-irabazien kontuan aitortuko dira, gastu edo diru-sarrera moduan, hurrenez hurren.

Balio-narriaduraren ondoriozko galera bat atzera itzultzen denean, aktiboaren kontabilitateko zenbatekoa haren zenbateko berreskuragarriaren berrikusitako zenbatespenaren neurri berean handituko da. Hala ere, handitutako kontabilitateko zenbateko hori ez da izango aurreko ekitaldietan narriaduraren ondoriozko galerarik aitortu ezean zehaztuko zena baino handiagoa.

Sozietateko administratzaileen iritziz, ez dago 2020ko urteko kontu erantsietan islatutakoaz bestelako narriadura-zantzu gehigarriri.

### 4.3. Deterioro del valor del inmovilizado material e intangible

Al cierre de cada ejercicio siempre que existan indicios de pérdida de valor de un elemento del inmovilizado, la Sociedad procederá a estimar mediante el denominado "Test de deterioro" la posible existencia de pérdidas de valor que reduzcan el valor recuperable de dichos activos a un importe inferior al de su valor en libros.

El importe recuperable se determina como el mayor importe entre el valor razonable menos los costes de venta y el valor en uso.

Las correcciones valorativas por deterioro de los elementos del inmovilizado, así como su reversión, cuando las circunstancias que lo motivaron hubieran dejado de existir, se reconocerán como un gasto o un ingreso, respectivamente, en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Cuando una pérdida por deterioro de valor revierte posteriormente, el importe en libros del activo se incrementa en la estimación revisada de su importe recuperable, pero de tal modo que el importe en libros incrementado no supere el importe en libros que se habría determinado de no haberse reconocido ninguna pérdida por deterioro en ejercicios anteriores.

Los Administradores de la Sociedad consideran que no hay indicios de deterioro adicionales a los reflejados en las cuentas anuales adjuntas al 31 de diciembre de 2020.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 20528121 C

**4.4. Errentamenduak**

Errentamenduak finantza-errentamendu gisa sailkatzen dira, baldin eta errentamenduaren baldintzetatik ondorioztatzen bada, maizterrari transferitzen zaizkiola kontratuaren xede den aktiboaren jabeari berez dagozkion arriskuak eta mozkinak. Errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira gainerako errentamenduak.

*Errentamendu operatiboa*

Errentamendu operatiboko akordioetatik datozen diru-sarrerak eta gastuak galdu-irabazien kontuari egozten zaizkio, sortzen diren ekitaldian.

Errentamendu operatibo bat kontratatzean egiten diren kobrantza edo ordainketa guztiak kobrantza edo ordainketa aurreratutzat hartuko dira, eta emaitzei egotziko zaizkie errentamendu-aldiaren barruan, errentan emandako aktiboaren mozkinak lagatzen edo jasotzen diren heinean.

**4.5. Finantza-tresnak**

*Finantza-aktiboak*

Finantza-aktiboak kategoria hauetan sailkatzen dira:

- Maileguak eta kobratzeko kontu-sailak: ondasun-salmentan edo enpresaren trafiko-eragiketen ondoriozko zerbitzugintzan sortutako finantza-aktiboak edota, merkataritza-jatorria eduki gabe, ondare-tresnak edo deribatuak ez direnak, baldin eta haien kobrantzak zenbateko zehatzekoak edo zehaztu daitekeen zenbatekokoak badira eta merkatu aktibo batean negoziatzen ez badira.

- Inbertsioak Taldeko enpresetako, elkartuetako eta talde anitzekoetako ondarean: Sozietatearekin kontrol-erlazio bidezko lotura duten enpresak jotzen dira Taldeko enpresa. Sozietateak enpresa elkartuen gainean eragin nabarmena izateko gaitasuna du. Bestalde, talde anitzeko sozietateen kategoriaren barruan dauden sozietateen gainean, baterako kontrola egiten da bazkide batekin edo gehiagorekin batera, betiere akordio baten indarrez.

**4.4. Arrendamientos**

Los arrendamientos se clasifican como arrendamientos financieros siempre que de las condiciones de los mismos se deduzca que se transfieren al arrendatario sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a la propiedad del activo objeto del contrato. Los demás arrendamientos se clasifican como arrendamientos operativos.

*Arrendamiento operativo*

Los ingresos y gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se cargan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se devengan.

Cualquier cobro o pago que pudiera realizarse al contratar un arrendamiento operativo, se tratará como un cobro o pago anticipado que se imputará a resultados a lo largo del periodo del arrendamiento, a medida que se cedan o reciban los beneficios del activo arrendado.

**4.5. Instrumentos financieros**

*Activos financieros*

Los activos financieros se clasifican en las siguientes categorías:

- Préstamos y partidas a cobrar: activos financieros originados en la venta de bienes o en la prestación de servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o los que no teniendo un origen comercial, no son instrumentos de patrimonio ni derivados y cuyos cobros son de cuantía fija o determinable y no se negocian en un mercado activo.

- Inversiones en el patrimonio de empresas del Grupo, asociadas y multigrupo: se consideran empresas del Grupo aquellas vinculadas con la Sociedad por una relación de control, y empresas asociadas aquellas sobre las que la Sociedad ejerce una influencia significativa. Adicionalmente, dentro de la categoría de multigrupo se incluye a aquellas sociedades sobre las, en virtud de un acuerdo, se ejerce un control conjunto con uno o más socios.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 20528122 C

- Emandako fidantzak eta gordailuak: Sozietateak bere gain hartutako obligazioak betetzearen berme gisa eratzen dituen gordailuak.

*Hasierako balorazioa-*

Finantza-aktiboak, hasieran, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioarekin erregistratzen dira, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak gehituta.

Mendeko sozietatearen gaineko kontrola ematen duten taldeko enpresen ondarean egindako inbertsioen kasuan, lege-aholkulariei edo inbertsioa egitearekin lotzen diren beste profesional batzuei ordaindutako ordainsariak zuzenean egozten dira galdu-irabazien kontura.

*Geroko balorazioa-*

Kobratzeko maileguak eta partidak kostu amortizatuan baloratuko dira.

Taldeko enpresetan, enpresa elkartuetan eta talde anitzekoetan egindako inbertsioak haien kostura baloratuko dira, kenduta, hala badagokio, narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak. Zuzenketa horiek dira liburuetan duten balioaren eta berreskura daitekeen zenbatekoaren arteko aldea, eta, horretarako, kontuan hartuko da berreskura daitekeen zenbatekoa dela bi zenbateko hauen arteko handiena: arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak, eta inbertsioaren ondoriozko eskudiru-fluxuen gaur egungo balioa. Berreskura daitekeen zenbatekoaren ebidentzia hoberik ezean, mota horretako aktiboen narriadura kalkulatzean, partaidetzako sozietatearen ondare garbia hartuko da aintzat, balorazioaren datan dauden gainbalio tazituekin zuzenduta.

Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, eta inbertsio batek liburuetan duen balioa berreskuragarria ez den ebidentzia objektiboa dagoenean, Sozietateak narriadura-testa egiten du arrazoizko balioan erregistratuta ez dauden finantza-aktiboetarako. Narriaduraren ebidentzia objektiboa dagoela jotzen da finantza-aktiboaren balio berreskuragarria kontabilitateko balioa baino txikiagoa bada. Hala gertatzen denean, narriadura horren erregistroa galdu-irabazien kontuan jasotzen da.

- Fianzas y depósitos entregados: Depósitos constituidos en garantía del cumplimiento de obligaciones contraídas por la Sociedad.

*Valoración inicial-*

Los activos financieros se registran inicialmente al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de la transacción que sean directamente atribuibles.

En el caso de inversiones en el patrimonio de empresas del grupo que otorgan control sobre la sociedad dependiente, los honorarios abonados a asesores legales u otros profesionales relacionados con la adquisición de la inversión se imputan directamente a la cuenta de pérdidas y ganancias.

*Valoración posterior-*

Los préstamos y partidas a cobrar se valoran por su coste amortizado.

Las inversiones en empresas del Grupo, asociadas y multigrupo se valoran por su coste, minorado, en su caso, por el importe acumulado de las correcciones valorativas por deterioro. Dichas correcciones se calculan como la diferencia entre su valor en libros y el importe recuperable, entendido éste como el mayor importe entre su valor razonable menos los costes de venta y el valor actual de los flujos de efectivo futuros derivados de la inversión. Salvo mejor evidencia del importe recuperable, en la estimación del deterioro de esta clase de activos se tomará en consideración el patrimonio neto de la sociedad participada, corregido por las plusvalías tácitas existentes en la fecha de la valoración.

Al menos al cierre del ejercicio, siempre que exista evidencia objetiva de que el valor en libros de una inversión no sea recuperable, la Sociedad realiza un test de deterioro para los activos financieros que no están registrados a valor razonable. Se considera que existe evidencia objetiva de deterioro si el valor recuperable del activo financiero es inferior a su valor en libros. Cuando se produce, el registro de este deterioro se registra en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 20528123 C

Zehazki, eta merkataritza-zordunei eta kobratu beharreko beste kontu batzuei buruzko balorazio-zuzenketei dagokienez, kredituak narriatzeko irizpideari jarraitzen dio Sozietateak, betiere kreditu horiek kobratzeko zailtzat jotzea zentzuz pentsarazten duten zirkunstantziak gertatzen diren kasuetan —horiek berreskuratzeko banako analisiaren ondoren, eta horien antzinatasunaren arabera eta beste alderdi batzuen arabera (egoera irregularra, hartzekodunen konkurtsoa edo kaudimen gabeziak)—.

Sozietateak finantza-aktiboei baja ematen die dagokion finantza-aktiboaren eskudiru-fluxuaren gaineko eskubideak amaitu edo laga direnean, baldin eta horrelakoak edukitzearen berezko arriskuak eta mozkinak funtsean transferitu badira.

*Finantza-pasiboak*

Finantza-pasiboak dira sozietatearen zordunketak eta ordaintzeko partidak, enpresaren trafiko-eragiketen ondorioz ondasunak eta zerbitzuak erostean sortu direnak, edo, merkataritza-jatorririk ez duten arren, finantza-tresna deribatutzat hartu ezin direnak ere.

Zordunketak eta ordaintzeko partidak jasotako ordainaren arrazoizko balioan balioesten dira hasieran, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuen arabera egokituta. Ondoren, pasibo horiek amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira.

Sozietateak finantza-pasiboei baja ematen die horrelakoak sortu dituzten obligazioak amaitzen direnean.

**4.6. Atzerriko monetako transakzioak**

Euroa da Sozietateak erabiltzen duen moneta funtzionala. Horrenbestez, euroaz bestelako dibisa batzuetan egin beharreko eragiketak, atzerriko monetan egindakotzat joko dira, eta eragiketen datan indarrean dauden truke-tasaren arabera erregistratzen dira.

Ekitaldiaren amaieran, atzerriko monetan izendatutako moneta-aktiboak eta -pasiboak balantzearen datako truke-tasa aplikatuta bihurtzen dira. Adierazten diren mozkinak edo galerak zuzenean egozten dira sortzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan.

En particular, y respecto a las correcciones valorativas relativas a los deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, la Sociedad sigue el criterio de deteriorar los créditos para los que, tras un análisis individual de la recuperabilidad de los mismos, y en función de su antigüedad u otros aspectos, como situación irregular, concurso de acreedores o insolvencias, concurran circunstancias que permitan razonablemente su calificación como de dudoso cobro.

La Sociedad da de baja los activos financieros cuando expiran o se han cedido los derechos sobre los flujos de efectivo del correspondiente activo financiero y se han transferido sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad.

*Pasivos financieros*

Son pasivos financieros aquellos débitos y partidas a pagar que tiene la Sociedad y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o también aquellos que, sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

Los débitos y partidas a pagar se valoran inicialmente al valor razonable de la contraprestación recibida, ajustada por los costes de la transacción directamente atribuibles. Con posterioridad, dichos pasivos se valoran de acuerdo con su coste amortizado.

La Sociedad da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

**4.6. Transacciones en moneda extranjera**

La moneda funcional utilizada por la Sociedad es el euro. Consecuentemente, las operaciones en otras divisas distintas del euro se consideran denominadas en moneda extranjera y se registran según los tipos de cambio vigentes en las fechas de las operaciones.

Al cierre del ejercicio, los activos y pasivos monetarios denominados en moneda extranjera se convierten aplicando el tipo de cambio en la fecha del balance. Los beneficios o pérdidas puestos de manifiesto se imputan directamente a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se producen.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 20528124 C

### 4.7. Mozkinen gaineko zergak

Mozkinen gaineko zergaren ondoriozko gastuaren edo diru-sarreraren barruan sartzen dira zerga korronteren ondoriozko gastuari edo diru-sarrerari dagokion zatia eta zerga geroratuaren ondoriozko gastuari edo diru-sarrerari dagokion zatia.

Zerga korrontea sozietateak ekitaldi bateko mozkinaren gaineko zergaren likidazio fiskalen ondorioz ordaindutako zenbatekoa da. Zergaren kuotako kenkariek eta bestelako abantaila fiskalek —atxikipenak eta konturako ordainketak salbuetsita— eta aurreko ekitaldietako eta honetan egiaz aplikatutako zerga-galera konpentsagarriek zerga korrontearen zenbateko txikiagoa egotea dakarte.

Zerga geroratuaren ondoriozko gastua (edo sarrera) zerga geroratuaren ondoriozko aktiboen eta pasiboen aitorpenarekin eta ezereztearekin bat dator. Horrelakoek aldi baterako diferentziak hartzen dituzte barnean; aktiboen eta pasiboen kontabilitateko zenbatekoen eta haien balio fiskalaren arteko diferentzien ondorioz ordaintzea edo berreskuratzea aurreikusitako zenbatekoak dira horiek, baita konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak eta fiskalki aplikatu gabeko kenkari fiskalen ondoriozko kredituak ere. Zenbateko horiek erregistratzeko, berreskuratzea edota kitatzea espero den karga-tasa aplikatzen zaio dagokion aldi baterako diferentziari edo kredituari.

Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak aitortzen dira aldi baterako diferentzia zergapegarri guztietarako, betiere merkataritzako funtsen edo bestelako aktibo edo pasiboen hasierako aitorpenaren ondoriozkoak ez badira, eta horrelakoak emaitza fiskalean eta kontabilitateko emaitzan eraginik ez duen eragiketa batean gertatzen badira eta negoziazio-konbinazio bat ez bada.

Zerga geroratuen ondoriozko aktiboak, bestalde, sozietateak etorkizunean horiek gauzatu ahal izateko behar adina zerga-irabazi izango dituela probablea dela jotzen denean baino ez dira aitortuko.

Zerga geroratuen ondoriozko aktiboak eta pasiboak, ondare-kontuetan zuzeneko karguak edo ordainketak dituzten eragiketen ondorio direnak, ondare garbian kontrapartida eginda kontabilizatzen dira ere bai.

Kontabilitatea ixten den aldiro zerga geroratuagatik erregistraturik dauden aktiboak berriz aztertzen dira, eta horiei dagozkien zuzenketak egiten dira etorkizunean

### 4.7. Impuestos sobre beneficios

El gasto o ingreso por impuesto sobre beneficios comprende la parte relativa al gasto o ingreso por el impuesto corriente y la parte correspondiente al gasto o ingreso por impuesto diferido.

El impuesto corriente es la cantidad que la Sociedad satisface como consecuencia de las liquidaciones fiscales del impuesto sobre el beneficio relativas a un ejercicio. Las deducciones y otras ventajas fiscales en la cuota del impuesto, excluidas las retenciones y pagos a cuenta, así como las pérdidas fiscales compensables de ejercicios anteriores y aplicadas efectivamente en éste, dan lugar a un menor importe del impuesto corriente.

El gasto (o el ingreso) por impuesto diferido se corresponde con el reconocimiento y la cancelación de los activos y pasivos por impuesto diferido. Estos incluyen las diferencias temporarias que se identifican como aquellos importes que se prevén pagaderos o recuperables derivados de las diferencias entre los importes en libros de los activos y pasivos y su valor fiscal, así como las bases imponibles negativas pendientes de compensación y los créditos por deducciones fiscales no aplicadas fiscalmente. Dichos importes se registran aplicando a la diferencia temporaria o crédito que corresponda el tipo de gravamen al que se espera recuperarlos o liquidarlos.

Se reconocen pasivos por impuestos diferidos para todas las diferencias temporarias imponibles, excepto aquellas derivadas del reconocimiento inicial de fondos de comercio o de otros activos y pasivos en una operación que no afecta ni al resultado fiscal ni al resultado contable y no es una combinación de negocios.

Por su parte, los activos por impuestos diferidos sólo se reconocen en la medida en que se considere probable que la Sociedad vaya a disponer de ganancias fiscales futuras con las que poder hacerlos efectivos.

Los activos y pasivos por impuestos diferidos, originados por operaciones con cargos o abonos directos en cuentas de patrimonio, se contabilizan también con contrapartida en patrimonio neto.

En cada cierre contable se reconsideran los activos por impuestos diferidos registrados, efectuándose las oportunas correcciones a los mismos en la medida en que

Foru Seilua
Timbre Foral
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos
N 20528125 C

berreskuratzeari buruz zalantzak dauden neurrian. Halaber, balantzean erregistraturik ez dauden zerga geroratuen ondoriozko aktiboak ere ebaluatzen dira itxiera bakoitzean, eta horiek aitortuko dira etorkizunean mozkin fiskalekin berreskuratzea gertagarri bilakatzen den heinean.

existan dudas sobre su recuperación futura. Asimismo, en cada cierre se evalúan los activos por impuestos diferidos no registrados en balance, de forma que son objeto de reconocimiento en la medida en que pase a ser probable su recuperación con beneficios fiscales futuros.

**4.8. Diru-sarrerak eta gastuak**

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, haiek irudikatzen duten ondasunen eta zerbitzuen korronte erreala gertatzen denean, haien ondoriozko moneta-korronteak edo finantza-korronteak edozein unetan gertatzen direlarik ere. Diru-sarrera horiek jasotako ordainaren arrazoizko balioagatik balioesten dira, horri deskontuak eta zergak kendu ostean.

Zerbitzugintzaren ondoriozko sarrerak aitortzean, kontuan izango da balantzearen datan zer neurritan egin den zerbitzua, betiere transakzioaren emaitza modu fidagarrian zenbatetsi badaiteke.

Finantza-aktiboetatik sortutako interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz aitortzen dira, eta dibidenduak aitortzen dira akziodunak horiek jasotzeko eskubidea duela deklaratzen denean. Nolanahi ere, eskuratu ondoren sortzen diren finantza-aktiboetako interesak eta dibidenduak diru-sarrera moduan aitortuko dira galdu-irabazien kontuan.

__*Jasotako ustiapeneko diru-laguntzak*__

1. oharrean adierazitako helburuekin bat etorriz, sozietateak euskal enpresen ekonomia nazioartekotzea sustatzen du, eta enpresei laguntza ematen die nazioarteko proiekzioan, bai eta eskumena duten agenteei ere, Euskal Autonomia Erkidegora kanpoko inbertsioak erakar ditzaten.

Ildo horretan, sozietatea ustiapenerako dirulaguntzen bidez finantzatzen da batez ere, eta dirulaguntza horiek bere egituraren kostua estaltzen duen zenbatekoa izango dute. Haatik, ez dira hor sartzen eskudiru-fluxuen irteera ekarriko ez duten gastuak, batez ere ibilgetuaren amortizazioa eta narriadura eta ondarean parte hartzearen ondoriozko narriadurak eta galerak. Euskal Autonomia Erkidegotik jasotako dirulaguntza horiek nazioartekotzeari lotutako interes publiko edo orokorreko jarduera garatzeko berariazko gastuak eta jarduerak

**4.8. Ingresos y gastos**

Los ingresos y gastos se imputan en función del criterio de devengo, es decir, cuando se produce la corriente real de bienes y servicios que los mismos representan, con independencia del momento en que se produzca la corriente monetaria o financiera derivada de ellos. Dichos ingresos se valoran por el valor razonable de la contraprestación recibida, deducidos descuentos e impuestos.

El reconocimiento de los ingresos por prestación de servicios se realiza considerando el grado de realización de la prestación a la fecha del balance, siempre y cuando el resultado de la transacción pueda ser estimado con fiabilidad.

Los intereses recibidos de activos financieros se reconocen utilizando el método del tipo de interés efectivo y los dividendos, cuando se declara el derecho del accionista a recibirlos. En cualquier caso, los intereses y dividendos de activos financieros devengados con posterioridad al momento de la adquisición se reconocen como ingresos en la cuenta de pérdidas y ganancias.

__*Subvenciones de explotación recibidas*__

De acuerdo con los objetivos que se indican en la Nota 1, la Sociedad promueve la internacionalización de la economía de las empresas vascas, dando soporte a las empresas en su proyección internacional, así como a los agentes competentes, en la atracción de inversiones externas a la Comunidad Autónoma Vasca.

En este sentido, la Sociedad se financia, principalmente, a través de subvenciones a la explotación por un importe tal que cubra el coste de su estructura, a excepción de aquellos gastos que no impliquen salida de flujos de efectivo, principalmente la amortización y el deterioro del inmovilizado y los deterioros y pérdidas de participaciones en el patrimonio. Dichas subvenciones recibidas de la Comunidad Autónoma de Euskadi son transferencias recibidas para financiar las actividades y gastos específicos del desarrollo de la actividad de interés

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 20528126 C

finantzatzeko izango dira, eta zuzenean egozten zaizkie galdu-irabazien kontuari, gastu horiek ekitaldian bertan sortzen diren heinean.

*Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak (12.5 eta 13. oharrak)*

Galdu-irabazien kontuko epigrafe honetan sartzen dira Sozietateak ematen dituen ustiapeneko eta Kapitaleko dirulaguntzak: hain zuzen ere, Sozietateak berak atzerrian parte hartzen duen sozietateei beren jarduerak garatzeko ematen dizkien dirulaguntzak. Dirulaguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan xedatutako baldintzen arabera ematen dira, ustiapen-gastuak finantzatzeko.

**4.9. Hornidurak, kontingentziak eta etorkizuneko konpromisoak**

Sozietatearen administratzaileek urteko kontuak egiteko garaian honako hauek bereizten dituzte:

- Hornidurak: iraganeko gertaeren ondoriozko oraingo obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak, baldin eta haiek kitatzeak baliabide-irteera eragitea oso litekeena bada, eta haien zenbatekoa eta/edo kitatzeko unea zehaztugabea bada.

- Pasibo kontingenteak: iraganeko gertaeren ondorioz sor daitezkeen obligazioak, sozietatearen nahiarekin lotuta ez dagoen etorkizuneko gertakizun bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen baldintzapean badago haiek gauzatzea.

- Etorkizuneko konpromisoak: Eusko Jaurlaritzak onartutako konpromiso aurreikusi bat dagoenean hainbat inbertsio eta gastu ez aldizkakoetarako, baina horien sortzapena ez denean ekitaldiaren itxieran sortuko.

Urteko kontuetan jasotako hornidura guztiei dagokienez, estimatzen da obligazioari erantzun behar izateko aukera handiagoa dela hori ez gertatzeko aukera baino. Pasibo kontingenteak ez dira urteko kontuetan aitortzen, eta haien berri ematen da, ordea, memoriaren oharretan, betiere ez badira urrunekotzat jotzen.

público o general asociada a la internacionalización y se imputan directamente a la cuenta de pérdidas y ganancias, en tanto en cuanto los gastos relacionados se incurren en el propio ejercicio.

*Otros gastos de gestión corriente (Notas 12.5 y 13)*

Bajo este epígrafe de la cuenta de pérdidas y ganancias se incluyen las subvenciones de explotación y de capital concedidas por la Sociedad a las sociedades en las que participa en el extranjero para el desarrollo de sus actividades. Dichas subvenciones se otorgan en función de las condiciones establecidas en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para financiar los gastos de explotación de las mismas.

**4.9. Provisiones, contingencias y compromisos futuros**

Los Administradores de la Sociedad en la formulación de las cuentas anuales diferencian entre:

- Provisiones: saldos acreedores que cubren obligaciones actuales derivadas de sucesos pasados, cuya cancelación es probable que origine una salida de recursos, pero que resultan indeterminados en cuanto a su importe y/o momento de cancelación.

- Pasivos contingentes: obligaciones posibles surgidas como consecuencia de sucesos pasados, cuya materialización futura está condicionada a que ocurra, o no, uno o más eventos futuros independientes de la voluntad de la Sociedad.

- Compromisos futuros: conjunto de inversiones y gastos de carácter no periódico para los que existe un compromiso previsto aprobado por el Gobierno Vasco, pero que no serán objeto de devengo al cierre del ejercicio.

Las cuentas anuales recogen todas las provisiones con respecto a las cuales se estima que la probabilidad de que se tenga que atender la obligación es mayor que de lo contrario. Los pasivos contingentes no se reconocen en las cuentas anuales, sino que se informa sobre los mismos en las notas de la memoria, en la medida en que no sean considerados como remotos.

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 20528127 C

Sozietateko administratzaileen iritziz, 2020ko abenduaren 31n ez dago pasibo kontingente adierazgarririk.

Hornidurak balioesten dira obligazioa kitatzeko edo eskualdatzeko behar den zenbatekoaren ahalik eta zenbatespen onenaren balio eguneratuan, betiere gertaerari eta haren ondorioei buruz eskura dagoen informazioa aintzat hartuta, eta aipatutako hornidura horiek finantza-gastu gisa sortzen den neurrian eguneratzeagatik sortutako doikuntzak erregistraturik.

Obligazioa kitatzeko unean hirugarren batengandik jasotzekoa den konpentsazioa —baldin eta diru-itzultze hori jasotzeko zalantzarik ez badago— aktibo gisa erregistratzen da, salbu arriskuaren zati bat kanporatzeko legezko lotura dagoenean eta horren arabera sozietateak erantzuteko betebeharrik ez duenean; egoera horretan, konpentsazioa kontuan hartuko da dagokion horniduraren zenbatekoa, hala badagokio, kalkulatzeko.

**4.10. Langileak kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainak**

Indarrean dagoen legediaren arabera, sozietatea derrigortuta dago langileei kalte-ordainak ematera, egoera jakin batzuetan beren arteko lan-harremana eten duen kasuetan. Horrenbestez, arrazoizko kuantifikazioa izan dezaketen kaleratzeen ondoriozko kalte-ordainak gastu gisa erregistratzen dira kaleratzeko erabakia hartzen den ekitaldian, betiere hirugarrenarekiko iguripenak sortu badira.

2019ko ekitaldian, kontzeptu horretan 84.612 euroko gastua erregistratu da, "Epe laburreko hornidurak" epigrafean (12.3 oharra), nahiz eta 2020ko ekitaldiaren amaieran kontzeptu horregatik gasturik eman ez delarik.

**4.11. Pentsioen ondoriozko konpromisoak eta langileei eman beharreko bestelako ordainsariak**

Sozietateak ez du langileentzako erretiroko pentsio-planik, eta Estatuko Gizarte Segurantzak estaltzen ditu horri buruzko obligazioak.

Gainera, sozietatearen administrazio-kontseiluak erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak eratutako Itzarri BGAE

Los Administradores de la Sociedad estiman que no existen pasivos contingentes significativos al 31 de diciembre de 2020.

Las provisiones se valoran por el valor actual de la mejor estimación posible del importe necesario para cancelar o transferir la obligación, teniendo en cuenta la información disponible sobre el suceso y sus consecuencias, y registrándose los ajustes que surjan por la actualización de dichas provisiones como un gasto financiero conforme se va devengando.

La compensación a recibir de un tercero en el momento de liquidar la obligación, siempre que no existan dudas de que dicho reembolso será percibido, se registra como activo, excepto en el caso de que exista un vínculo legal por el que se haya exteriorizado parte del riesgo, y en virtud del cual la Sociedad no esté obligada a responder; en esta situación, la compensación se tendrá en cuenta para estimar el importe por el que, en su caso, figurará la correspondiente provisión.

**4.10. Indemnizaciones por despido**

